

## **Gertu Kultura kultura-programatzaileen sarea sortu da Gipuzkoan, gizarte-erakundeen eskutik zaurgarritasun egoeran dauden pertsonen kultura eskura izan dezaten laguntzeko elkartu direnak**

- Gipuzkoako kulturaren eta gizartearen sektoreetako adituek hartu dute parte Santa Teresa Komentuan egin den Gertu Kultura sarearen inaugurazioko jardunaldian.
- Oraingoan, 15 kultura-programatzailek eta 20 erakundek osatzen dute Gertu Kultura sarea

Asteazkena, 2023ko azaroak 22



Gaur inauguratu da Donostian **Gertu Kultura Gipuzkoa** kultura-programatzaileen sarea, gizarte-erakundeen eskutik zaurgarritasun egoeran dauden pertsonen kultura eskura izan dezaten laguntzeko elkartu direnak. Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetzaz, Gazteria eta Kirol Departamentuaren eta Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentuaren eta La Caixa Fundazioaren babesarekin eta Orona eta Irizar enpresen kolaborazioarekin sortu da irabazi asmorik gabeko ekimen hau, eta bere helburua da, kulturaren bitartez, pertsonen bizi-kalitatea hobetzea.

Kultura behar gisa eta kultura eskura izatea eskubide gisa ulertuta, kulturaren eta gizartearen sektoreen artean topagune egonkorak sortzea da Gertu Kultura ekimenaren asmoa.

Horretarako, kultura-programatzaile publiko eta pribatuen, erakundeen eta mezenasen konplizitateak, lankidetzatik eta konpromiso sozialetik abiatuta, zaugarritasun egoeran dauden pertsonen arreta ematen dieten eta haiekin lan egiten duten erakunde sozialek kultura-espazio eta -esperientzia berezietan goza dezakete prezio oso murrizetan, kultura eskura izateko lehentasuna izan eta kolektibo ezberdinen beharrak entzutean eta behar horiei erantzutean oinarritutako tratua pertsonalizatua jaso.

Aldi berean, Gertu Kulturak hezkuntzarekiko konpromisoa hartzen du bi sektoreen artean zubiak eraikitzeko, urte osoan zehar eskuragarritasunari eta dibertsitateari buruzko lantaldeak eta prestakuntza-ekintzak antolatuta.

Kultura-programatzaileei aholkularitza-zerbitzua ematea da dauden oztopo eta behar sozialez jabetzea ahalbideratzen duen beste lan-ildo bat, eta kulturaz gozatzeko aukera berriak sortzen ditu, hala nola goizeko saioak edo saio lasaiak ekipamendu ezberdinetan.

Era horretan, Gertu Kultura Apropa Cultura sareko kide da; sare hori Bartzelonako Auditori musika-zentroan abiarazitako gizarte-erantzukizuneko programa bat da eta, Katalunian 17 urteko ibilbidea egin ondoren, erreferentziazko sare inklusiboa da gaur egun, 190 kultura-programatzaile baino gehiagorekin, 1.800 gizarte-erakunde baino gehiagorekin eta 54 udalerrri baino gehiagorekin; eta horiek guztiak ziur daude kultura pertsona duintzen duela eta kultura eskura izateko aukera bermatu egin behar dela, inor bazter utzi gabe.

Gertu Kultura gainerako lurraldeetara hedatzeko asmoz sortu da Gipuzkoan eta, hilabete luzez lanean jardun ondoren, ondorengo kultura-programatzaileen parte-hartzearekin:

1. Zeraingo Udala
2. Balenciaga Museoa
3. Chillida Leku
4. Dabadaba
5. Euskadiko Orkestra
6. Euskal Itsas Museoa
7. Igartubeiti Baserri Museoa
8. Kursaal
9. Laboratorium Bergara Zientzia Museoa
10. D'Museoa
11. Museum Cemento Rezola
12. Musikene. Euskal Herriko Goi-mailako Musika Ikastegia

13. Donostiako Orfeoia
14. Topic Museoa
15. Zumalakarregi Museoa

Eta ondorengo zentro eta erakunde sozialen parte-hartzearekin: izendatu guztiak

1. Aita Etxe
2. Aita menni
3. Afagi
4. Agifes
5. Aspace
6. Arrats
7. Atzegi
8. Bagara
9. Bidez bide
10. Cáritas
11. Gurutze Gorria
12. Emaus
13. Erroak
14. Zorroaga Fundazioa
15. Goyeneche Fundazioa
16. Gizaide
17. Gestión de Servicios Residenciales S.COOP
18. San Jose de la Montaña egoitza
19. Kabia
20. Matia Fundazioa

Gertu Kultura sarea kultura-programatzaile eta erakunde sozial guztiei irekita dago, eta etengabe eta urteko edozein unetan egin dezakete sarearekin bat, [www.gertukultura.org](http://www.gertukultura.org) webgunearen bitartez.

Oso erraza da **Gertu Kultura** sarean parte hartzeko dinamika. Gizarte-erakundeentzako doako tresna erabilgarri gisa planteatzen da, eta gertukultura.org plataformaren bitartez erreserba dezakete zuzenean haien sarrera. Plataforma horretatik abiatuta, zuzeneko harremana ezartzen du kultura-programatzaileekin, eta haien ohiko programazioa prezio sozial batean eskaintzen dute programatzaile horiek, jarduera bakoitzeko % 2ko gutxieneko edukiera-erreserba batekin. Plataforma horretan, gainera, erakunde sozialek modu erraz eta intuitiboan jakin dezakete zein diren kultura-ekipamendu bakoitzaren irisgarritasun-neurriak; bilaketak egin ditzakete ordutegien, udalerrien eta diziplina artistikoaren arabera, ekipamenduei buruzko informazioa jaso dezakete irakurketa errazean, eta kolektibo ezberdinek dituzten beharrak azaldu.

## **Inaugurazioko jardunaldia, gizartearen eta kulturaren arloetan adituak diren pertsonekin**

**Gertu Kulturaren** inaugurazioak kultura Gipuzkoan konpromiso, eraldaketa eta inpaktu sozialaren bultzatzaile gisa sustatzera bideratutako ekimenaren hasiera markatu du. Kulturaren eta gizartearen arloetako pertsona garrantzitsu eta aditu ugariaren parte-hartze nabarmena izan du jardunaldiak. Goizane Álvarez Kultura, Lankidetzak, Gazteria eta Kirol Diputatua eta Maite Peña Zainketa eta Gizarte Politiketako Diputatua arduratu dira ongietorria emateaz.

Gertu Kultura Gipuzkoa egitasmoaren zuzendari Marta Fontek eta Aproxa Cultura sareko zuzendari Sonia Gainzak garatu dute programaren aurkezpena.

Bi elkarrizketa egin dira, gainera. *‘Kultura: konpromisoa, eraldaketa eta inpaktu soziala’* izan da lehenengoa, eta Inpaktu Sozialean doktorea den Larritz Lazkanok moderatu du. Kataluniako Teatre Nacional antzokiko zuzendari exekutibo Mónica Camposek; Eusko Jaurlaritzako Museoen Zentroko Ainhoa Bernabek; Mireia Massagué Chillida-Lekuko zuzendariak; eta Emaus Gizarte Fundazioko Nagore Lopategi Escalladak hartu dute parte, eta haien ikuspegiak eta esperientziak partekatu dituzte.

Bigarren elkarrizketa *‘Oztoporik gabe: kultura-eskubideak, -eskuragarritasuna eta -partaidetza’* izan da, eta honako hauek parte hartu dute: Miriam Proiektuko Fátima Otegik (Caritas Gipuzkoa), MatiaZaleak ekimeneko kide Ainhoa Arrillagak (Matia Fundazioa), Bagara arreta komunitarioko proiektuko kide María Noguése, Arrats Elkartearen Hestia eta Irteerak Eguneko Zentroetako Iñigo Jiménezek eta Iosu Ugarte Amutxategik, eta Gizarteratzeko eta Indarkeria Matxistaren Biktima diren Emakumeen Arretarako Zerbitzuko Iker Usonek (Gipuzkoako Foru Aldundiko Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentua). Amaia Llorente pedagogo eta Cemento Rezola museoko koordinatzaileak moderatu du eztabaida hori.

Gainera, sakon aztertu dute kulturaren eta osasunaren arteko lotura Osakidetzako prebentzio eta promozio arloko ordezkariak; Arrate Iturralde Pinedo Erizaintza Familiar eta Komunitarioan espezializatutako erizainak eta Clara Val Martínez Erizaintza Familiar eta Komunitarioan espezializatutako erizainak egin dute hitzaldi hori (Lehen Arreta Koordinatzeko Zuzendariorde. Osasun Laguntzako zuzendaritza. Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia).

Musika Gelako (Euskadiko Orkestra) Hezkuntza Proiektuen Koordinatzaile Mikel Cañadak, bestalde, musika inklusioko tresna boteretsu nola bihur daitekeen azaldu du eta horren inguruan duen esperientzia partekatu.

Arratsaldeari amaiera emateko, kultura-eskubideak gauzatzeko modu ezberdinen inguruko jardunbide egoki gisa nabarmentzen diren zenbait proiektu aurkeztu dituzte.

Ezezagunok elkarteko zuzendari artistikoa, arte eszenikoetako interpretazioaren arloko irakaslea eta aktorea den Ana Pérezek eta Luisma Moreno Ezezagunokeko zuzendari eta Pauso Berriak programako koordinatzaileak EZEZAGUNOK sortzen eta garatzen izan duten esperientziaren aurkezpena egin dute. Ezezagunok adimen-urritasuna duten pertsonak osatutako antzerki elkarte da. Halaber, Emaus Gizarte Fundazioko Nagore Lopategi Escalladak Nomada Jaialdiaren proposamenaren berri eman du.

### **Gertu Kultura ekimenari buruz**

Aproxa Cultura sareak duen 17 urte baino gehiagoko esperientzia hartzen du Gertu Kulturak; Bartzelonako Auditorioan sortu zen sare hori, 2006an. 2021ean, Balear Uharteetara hedatu zen programa, eta 2022an Madrilera.

Programarekin bat egiten duten kultura-ekipamenduek prezio sinbolikoan jartzen dituzte haien programazioa eta ohiko ordutegiak gizarte-erakundeek eta bazterkeria-arriskuan dauden kolektiboek eskura. Gizarte-erakundeek, berriz, gustukoak dituzten kultura-esperientziak aukeratzeko eskubidea dute; izan ere, erabilgarri dagoen programazioaren edukieraren % 2 bermatzen da gutxienez, eta taldeentzako sarrerak eskatzeko denbora-tarte bat.

Diseinu propioa [www.gertukultura.org](http://www.gertukultura.org) plataforman argitaratzen da programazio hori guztia; erabilerraztasuneko irizpideekin diseinatuta dago plataforma, askotariko beharrak dituztenek arazorik izan ez dezaten. Plataforma horren bitartez, gizarte-erakundeek zuzenean jakinarazten diete kultura-erakundeei berriazko ze behar dituzten esperientziara joango diren pertsonak, esperientzia hori arrakastatsua izan dadin eta irisgarritasun-kate osoa bete dadin bermatzeko.

Gertukultura.org etengabeko prestakuntzako gordailua ere bada, artearen eta kulturaren bitartez, irisgarritasunarekin eta gizarte-inklusiorekin lotutako baliabideak eskuratzeko modua errazten duena.

Zaurgarritasun egoeran dauden pertsonekin prebentzioaren zein zuzeneko esku-hartzearen arloetan lan egiten duten gizarte- eta osasun-erakundeei zuzenduta dago programa.

- Adimen-urritasuna duten pertsonak: lanerako ikastegiak, okupazio-terapiako zerbitzuak...
- Gaixotasun mentalen ondorioz arazo sozialak dituzten pertsonak: eguneko zentroak, klub sozialak...
- Errehabilitazio komunitarioko zerbitzuak...
- Autismoaren Espektroko Nahasmendua duten pertsonak.
- Garun-paralisia eta horrekin lotutako nahasmenduak dituzten pertsonak.
- Desgaitasun fisikoa edo entzumen- edo ikusmen-desgaitasuna izanik, zaurgarritasun egoeran dauden pertsonak.



- Adineko pertsonak: egoitzak, eguneko zentroak, isolamenduari aurre egiteko programak...
  - Adikzioak dituzten pertsonak.
  - Askatasun gabeko egoeran dauden pertsonak.
  - Migratzaileak, errefuxiatuak eta gutxiengo etnikoetako pertsonak.
  - Zaurgarritasun egoeran dauden LGBTI kolektiboko pertsonak.
  - Haurrak eta nerabeak: Hezkuntza-jarduerako egoitzak eta zentro irekiak...
  - Emakumeak: indarkeria matxistak eta zaurgarritasuna.
  - Etxebizitarik ez duten pertsonak.
  - Gizarte-bazterkeriako arriskuan dauden pertsonak: harrera-zentroak, gizarte-zerbitzuetako zentroak...
  - Osasunaren arloko erakundeak.
- Sindromeekin edo gaixotasunekin lotutako senitartekoen elkarteak

**+Info:**

[komunikazioa.gipuzkoa@gertukultura.org](mailto:komunikazioa.gipuzkoa@gertukultura.org)  
[www.gertukultura.org](http://www.gertukultura.org)

